

HAZKUNDE EKONOMIKOAREN BIRTUTEAK

Ekonomiaren ohiko ikuspuntutik hazkunde ekonomikoa defendatzen da eta, are gehiago, ekonomiaren helburu bakarra bihurtu.

Herrialdeen arrakasta ekonomikoa euren BPGren arabera neurtzen da:

- a) BPG osoa
- b) BPGren hazkunde tasa
- c) BPG per capita

Eta, herrien sailkapenak ere, BPGren arabera egiten dira:

Biztanleko BPGa (EAP) herrialde eta urtearen arabera (EU 28=100). 2005-2014

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
EB 28	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Alemania	117	117	117	118	116	121	124	124	124	126
Austria	125	125	123	124	125	126	127	131	131	129
Belgika	119	116	115	114	116	119	119	120	120	118
Bulgaria	36	38	41	44	45	44	45	46	46	47
Zipre	99	99	100	105	105	102	96	91	84	82
Kroazia	58	58	61	63	61	59	59	60	59	59
Danimarka	123	123	121	123	122	126	125	126	126	125
Eslovakia	59	62	67	71	71	73	73	74	76	77
Eslovenia	86	86	87	89	85	83	82	81	80	82
Spainia	100	102	103	101	101	97	94	92	91	91
Estonia	59	64	68	68	62	63	69	74	75	76
Finlandia	115	114	118	120	116	115	116	115	113	110
Frantzia	109	107	107	106	107	108	108	107	108	107
Grezia	91	94	92	94	94	87	77	74	74	72
Hungaria	62	62	61	63	64	65	65	65	66	68
Irlanda	145	146	146	132	129	130	132	131	131	134
Italia	106	106	105	105	104	103	103	101	98	96
Letonia	51	55	60	60	52	52	56	60	62	64
Lituania	53	56	60	63	56	60	65	70	73	75
Luxemburgo	241	256	259	256	247	254	263	258	264	266
Malta	81	78	78	80	84	86	84	84	86	86
Herbehereak	134	135	137	139	137	134	134	132	132	131
Polonia	50	50	53	54	59	62	64	66	67	68
Portugal	79	79	79	79	81	81	78	77	77	78
Erresuma Batua	124	122	118	114	112	108	106	107	108	109
Txekiar Errepublika	80	81	83	81	83	81	83	82	83	84
Errumania	34	38	41	48	49	50	51	54	54	55
Suedia	123	125	127	126	122	125	126	127	124	123
Euskal AE	125	129	130	131	130	126	122	120	118	119
Estatu Batuak	160	154	151	146	145	146	144	148	150	151
Japonia	110	106	105	101	99	102	100	102	103	101

(1)Eros Ahalmen Parekotasunean (EAP)

Iturria: EUROSTAT (2016-02-26) eta Eustat

Politikari eta ekonomilarien helburu bakarra, beraz, BPGren hazkundera da.

Zergatik?

a) Ekoizpena handitzen denean herriaren bizimaila handitzen da: ondasun eta zerbitzu gehiago dauzkate eskuragarri, kontsumitzeko.

b) Ondasun eta zerbitzu horiek guztiak ekoizteko enpresak eta langileak behar direnez, herrialdearen enplegua handitzen da eta langabezia murriztu. Jendearentzat lanerako aukera berriak sortzen dira.

c) Herrialdeen hazkunderari esker pobrezia desagertzen da. Nekazaritza munduan bizi den jendeari industrian aukera hobek sortzen zaizkio: hirietara mugitzeko eta errenta handitzeko.

d) Hazkunde ekonomikoari esker teknologiak garatzen dira. Enpresek teknologia berriak erabiltzen dituzte eta gizartean hedatzen dira. Hasieran atzerriko inbertsioak ekarriko ditu eta, gero, tokiko enpresek erabiliko dituzte.

e) Estatuak indartzen dira: ekoizpen handiagoa eta enplegu gehiago dagoenez, Estatuak zerga gehiago bildu ahal ditu eta zerbitzu publikoak indartu (hezkuntza, osasungintza, azpiegiturak).

f) Laburbilduz: hazkunderari esker populazioa hobeto biziko da, ezberdintasunak murriztuko dira eta herriak modernizatuko dira.

Garapen ekonomikoaren erakuslea: Biztanleko errenta

- Herrialdeen garapen edo ongizate mailen nazioarteko konparaketarako gehien erabiltzen den erakuslea da Biztanleko errenta.
- **Errenta mailaren erakusle gisa biztanleko BPG erabiltzen da:**
 - BPG / biztanleak
- Erakusle honen abantailak :
 1. Kalkulatzea erraza (zatikizuna = edozein nazio konturen agregatu orokorra)
 2. Zenbaki bakar baten herrialdekoen garapen kolektiboa laburbiltzen du.

5

Biztanleko errentarekin herrialdeak alderatzeko zailtasun nagusiak

- Biztanleko BPGren balioa balio monetarioa da eta herrialde bakoitzeko dibisari lotua.
- Herrialdeen Biztanleko BPG alderatzeko, erreferentzi-unitateak homogeneoak izan behar dute. Beharrezkoa da herrialde bakoitzaren moneten balioa balio bakarrean bihurtzea, normalean dolarretan adieraziz.
- Horretarako bi metodo :
 - Dibisen kanbio tasa erabili.
 - Eros Ahalmen Paritateak erabili

6

1.1. kanbio tasen metodoa

- Kanbio tasek adierazten dutena: dibisa merkatuek moneta bakoitzaren zein balorazio egiten duten.
- <https://www.ecb.europa.eu/stats/exchange/eurofxref/html/index.en.html>
- Europako banku zentralak argitaratzen ditu kanbio tasak

7



EUROPEAN CENTRAL BANK

EUROSYSTEM

Euro Foreign Exchange Reference Rates

04 April 2016

Currency		Spot
USD	US dollar	1.1380
JPY	Japanese yen	126.97
BGN	Bulgarian lev	1.9558
CZK	Czech koruna	27.046
DKK	Danish krone	7.4459
GBP	Pound sterling	0.79738
HUF	Hungarian forint	312.29
PLN	Polish zloty	4.2340
RON	Romanian leu	4.4648
SEK	Swedish krona	9.2493
CHF	Swiss franc	1.0919
NOK	Norwegian krone	9.4359
HRK	Croatian kuna	7.5115
BUR	Burundian franc	77.4600

1.1. kanbio tasen metodoa

- Kanbio tasa, € bat = 1,138 \$ beraz, \$1 = $1/1,138 = 0.87$ €
- EAeko BPGbb = 31.288 € (2012)

Horrela, herrialdeko BPG bere monetak dolarrarekin alderatzen da
(Kanbio tasarekin zatitu)

- BPGbb €tan x 1.138 \$/1 € = $31.288 \times 1.138 = 35605,74$ \$ = BPG bb \$tan
- Horrela, alderaketak egiteko herrialdeekin zerrenda homogeneous era dezakegu

9

1.1. kanbio tasen metodoa

- Arazoa : KANBIO TASA OSO ALDAKORRA DA
- Egun, kanbio tasak hainbat faktoreren menpe :
 - Ondasun eta zerbitzu merkataritza; kapital eragiketak; herrialdeen moneta politika...

10

1.2. Eros Ahalmen Paritatea

- Kanbio tasa erabiltzeak ez du balio herrialde baten errentak duen benetako eros ahalmena neurtzeko.
 - 100 \$ekin AEBn eros daitekeena ezin da 100\$ Japonian edo hemen erosi. Esterako: Zein garesti dagoen alkohola Iparraldean!
 - Hau da, herrialde bakoitzeko produktuen prezio-mailen arabera, errenta berak eros ahalmen ezberdina du.
- Nazioarteko Estatistika Instituzioek alde horiek kentzeko unitate bat sortu dute :
 - **Eros Ahalmen Paritatea (EAP)**

11

1.2. Eros Ahalmen Paritatea

- **Eros Ahalmen Paritatea (EAP)**
- Abantaila:
 - Balio guztiak dibisa bakarrera bihurtu
 - Prezio maila ezberdinek eros ahalmenean duten eragina kendu
- Metodoa: Ondasun multzo berak herrialde ezberdinetan zenbat balio duen kalkulatu eta balio horiek harremanetan jartzen dira.

12

EAPtan errentak nola alderatu

- Herrialdeen ongizate material maila aldera daiteke:
- Demagun, Ondasun otarre berak 90 koroa Suedian eta 100 € Espainian:
- Parekotasuna: Espainiako € baten eros ahalmena = Suedian 0.9 koroak duen eros ahalmena
 - Eros Ahalmen Paritatea: € 1 espainian = 0.9 koroa Suedian
 - Espainiako BPGbb € x 0.9 = Espainiako BPGbb koroetan (EAP erabiliz)
 - Espainiako batez besteko bizimaila materiala (EAP):
 - BPG bb = 28.705 € x 0.9 koroa/€ = 25.834,5 koroa
 - Suediako biztanleko BPG 34.446 Koroa dela jakinik,
 - Espainiako BPGbb (EAP) Suediakoarekin harremanetan: $25.834.5/34.446 \times 100 = \% 75$
 - Espainiako batez besteko bizimaila materiala Suediakoaren %75 da.
 - Espainiako batez besteko errenta duenak eros dezakeena Suediako batez besteko errenta duenak eros dezakeen %75 da.
- AEBko Biztanleko BPG (EAP) 47.000\$ bada eta Portugalekoa 23.500 AEBko biztanleen bizimaila materiala Portugalekoenen bikoitza da, batez beste.

13

	BPGbb \$etan 2011	PIBbb \$etan (EAP) 2011
Austria	49.809	41.822
Bélgica	46.878	37.737
China	5.414	8.382
Rep. Checa	20.244	27.062
Dinamarca	59.928	37.152
Finlandia	49.350	36.236
Francia	44.008	35.156
Alemania	43.742	37.987
Grecia	27.037	26.294
Hungría	14.050	19.591
Irlanda	47.513	39.639
Italia	36.267	30.464
Japón	45.920	34.740
Luxemburgo	113.533	80.119
Holanda	50.353	42.183
Polonia	13.540	20.334
Portugal	22.413	23.361
Rusia	12.993	16.736
Eslovaquia	17.644	23.304
España	32.360	30.626
Suecia	56.956	40.394
Reino Unido	38.522	30.626

- Biztanleko BPG dolarretan
- 2011
- Biztanleko BPG EAP
- 2011
- Iturria NMF

BPG ADIERAZLEARI EGINIKO KRITIKAK

Baina, BPGa hain adierazle ona al da?

BPGak zenbatzen dituenak:

- a) **Kutsadura:** ura kutsatuta badago eta ur botilaratua edan behar badugu BPG igotzen da. Prestige petrolio-untzia hondoratzen bada BPG igotzen da (gastu legalak, garbiketa lanak, erabilitako erregaiak,...).
- b) **Delinkuentzia:** lapurtutako gauzak berriro erosi behar, ate, alarma eta zarraila hobeak erosi, zaintza pribatua kontratatu, polizia gehiago.
- c) **Osasun-kalteak:** tabako gehiago salduz gero BPG igotzen da eta berak eragindako minbiziak sendatzea ere BPGean zenbatzen da.
- d) **Zorra:** familiek edo gobernuek kontsumoa edo inbertsioa zorraren bidez eginez gero BPG handitzen da.

e) **espekulazioa:** finantza-produktu guztien salerosketak zenbatzen dira, toxikoak izanda ere.

f) **Baliabide naturalen urritasuna edo agortzea:** positiboan zenbatzen da. Gero eta petrolio gutxiago geratzen bada eta, ondorioz, garestiagoa bada BPG igotzen da. Ez du kontuan hartzen kapital naturalaren galera.

Kontuan hartzen ez dituenak:

a) **Naturak emandako zerbitzuak:** naturak balio ekonomikoa duten zerbitzu asko ematen dizkigu (ura garbitzea, uholdeen aurkako babesa, airea garbitzea, CO2 gordetzea, eta abar). Horiek guztiak ez dira BPGean zenbatzen. Ordea natura suntsitzea positiboan zenbatzen da.

b) sostengarritasuna: BPGean ez da kontuan hartzen. Iraungitze bidean dagoen arraina arrantzatzeak balio positiboa ematen du, kontuan hartu barik espezie desagertuko den ala ez.

c) Etxean egindako lana: preziorik ez duenez BPGak ez du kontuan hartzen (etxea garbitzea, umeak eta nagusiak zaintzea, sukaldatzea).

d) Borondatezko lana: GKEetan egindako lanak ere ez du preziorik eta, beraz, ez da BPGean agertzen.

e) Kalitatea: ondasunak eta zerbitzuak euren prezioaren arabera baloratzen dira, ez euren kalitatearen arabera.

f) Gizarte harremanak: kohesioa, konfiantza, ziurtasuna, errespetua, bizitza esanguratsua, parte hartze politikoa,....

g) Gizartearen ezberdintasunak: BPG per capita zera da, BPG zati biztanle-kopurua. Herriaren aberastasuna neurtzeko erabili ohi da baina ez digu esaten errenta nola banatzen den.